

- Zer berri: Etxebizitza sozialetan izena eman daiteke
- Entzutekuak: Eneko Beretxinaga, jostailu erotikoez tailerra Gaztetxean

socialuzeko  
hamabostekaria **256.** alea  
2011ko abenduaren 9an

# @pil-pilean



Urteari errepaso  
irudit







AITOR MADRID



MARKEL ARIZAGA

## DIN DAN PLOF

Aupa Markel! Ondo bizi al gara? Gabonak hemen dittugu urtero legez. Zoriontsu izateko sasoia heldu da. Jaki gazi goxuak barra-barra irensteko sasoi paregabia. Eta zela ez, gure txokomai-tagarririk kolore ederrez argiztatzeko momentua.

Hamaika dira ospakizun tradizional honetaz gogaituak daozela komentatu dosten lagunak eta ez jakue arrazoirik falta.

Egunotan zoriona opatu biharra dago. Zoriontasunan paradisu al dira jai honak? Umientzat agian. Aurpegi alaixa jartzera bihurtzen gaituan jaixa nekez izan leike oasisa. Baina lasai, bizitza zailtzen dotsun pertsona horrek, jaiotan, hitz polittack opatuko dotsuz eta urtarrian lehengora bueltatuko da.

Jai honen beste ezaugarri nagusixa egin ohi diran otordutzarrak dira. Jana eta edana, hori da helburua. Senidez inguratuta, hori bai. Eta zer egin familixia falta dauken hoiekin? Ohartzen gara zer sartzen dogun gorputzera? Gero eta jaki gehixago transgenikuak dira eta horrek zer eragin dauka gudan? Baina lasai, urtarrian gimnasixua zain izango dogu soberan dittugun kiluak prezixo onian kentzen juateko.

Eta azkenik, gabonak girotzeko argixak. Bazter danak argiztatu bihar "eder" hori. Gure burua zurittuko dogu kontsumo baxuko bonbillekin eginak daozela esanaz gainera. Baina lasai, jaixak pasatu eta gero bost minutuko itzalaldi mundialera apuntatuko gara, bai gu eta baita instituzino publikuak be, energia aurreztu biharra daguala aldarrikatzeko.

Gabonak asmatu zittuanak, ziurrenik, borondate onenakin asmatu zittuala sinistia nahi dot. Hala eta be, kontsumismo basatixan eta faltsukerixan isla bihurtu dirala gero eta argixago daukat.

Itepa Aitor, berriz gabonetako atarixan aurkitzen gara. Ixa-ixa konturatu bare pasatu da urtia eta barrero sasoi hauetako hipnosian sartuta gare. Zoriona txoko guztixetan eta ez dakit han, baina Madrilen dendak egunero zabalik, salbuespenik bare.

Aurten zorte pixkat euki dot eta ez dot azarotik jasan bihar izan dogun umientzako jolas eta milaka kolonien iragarkixen presinua igarri. Ematen dau medikazio horren dosixek jadanik efekturik ez daukela nigan.

Hori bai, aurten lelengo aldiz lagun izkuttuan presentzia sentittu dot. Bildurrezko pelikuletan gertatzen dan moduan, presentzia horrek oso urduri ipini nau egun batzutan zihar. Badakizu, azken finian ikustezina dan norbait egun guztixan buruan eukitziak edozeinek burua galtzia eragitten dau.

Laburbiltzen, gabonak kontsumismuan 'denboraldi altua' bihurtu dira, oin dala denbora asko gainera. Baina badago beste zeoze: gabonetan ilusionatzen ez bazara, tristea zara eta ez daukazu lekurik gizartian. Ez behintzat berrero gauzak bere horretara bueltatu arte, danok urtarileko aldapia igotzen hasi arte, alegia. Uste dot, Aitor, 'El Grinch' ni naizela!

Baina guazen gauzak alde positibotik hartzera, kontsumismuan asuntua alde batera lagata, azkenian topikua bihurtuko da eta sasoi hauetan kontsumismua kritikatzia. Guazen gabonak dittuen alde

onak begiratzera. Neretzat, gabon sasoia herrittik barrero ibiltzeko momentua izango da, familixia ikusteko egun batzuk eta oin dala denboralditxo batetik hona ikusten ez dittudan lagunekin trago batzuk hartzeko momentua. Guzti hau gabonetan izan bihar bada, gabon zoriontsuak danori!

*“Hamaika dira ospakizun tradizional honetaz gogaituak daozela komentatu dosten lagunak.”*

Aitor Madrid

*“Gabonetan ilusionatzen ez bazara, tristea zara eta ez daukazu lekurik gizartian.”*

Markel Arizaga

Goguan hartzeko

Urte barri, txarri belarri, daukanak ez daukanari, nik ez daukat eta neri.  
Gotzon Garate, euskal atsotitza.



## GUTUNAK

Begiak eta bihotzak zabaltzeko

Datorren barixakuan ekitaldi berezi bat egingo doguzinean. Izango dira zuzeneko musika, antzerki eszenak, bideo hunkigarriak eta soraluzetar askoren babes-irrifarrak izango dira ordubete inguru iraungo duen sentikarian. Presoen eta Iheslarien egoeraren inguruan jendearen begiak eta bihotzak zabaltzea izango da beronen helburua. Sentitzea. Soraluzetar danok gonbidatuta zarete.

Aldez aurretik eskerrik asko ekitaldian parte hartuko dozuen aktore, musikari eta teknikarioroi: Irati Trebiño, Ugaitz Catalan, Oskar Garitano, Gaizka Azkarate, Juan Fernandez, Jon Basauri, Lorea de Castro, Gotzon Elizburu, Jon Mendizabal eta Anartz Lasa. Eskerrik asko.

Tik-tak, tik-tak, tik-tak... funtzioa hastera doa.

**Egoitz Unamuno eta Tere Guenetxea**  
Giza-eskubideen aldeko ekintzaileak

## Pil-pilean

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonia:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarrekin ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZeko  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

**Javier Alberdi**



Baimendutako harategia  
**Euskal Okela**  
Carniceria autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

**GILA TABERNA**

GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



**Kontulan Aholkularitza S.L.**

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarrekin  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk.  
Tifonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze  
GIPUZKOA

**MENDIZABAL**  
okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91

Balategieta 6  
T. 943 75 13 99

SORALUZE



**Aras**

DIN arauak jarraituz  
eta zehaztasun handiz egindako torniluak

T. 943 75 17 36 / 18 03  
F. 943 75 22 95

Industrialdea 20 - 21  
50 Posta Kutxatila  
20590 Soraluze

**Ion Murgizu Pinturak**

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak  
Estukoak  
Fatxadak  
Eskilarak eta patioak  
Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030  
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea





## bittartetik



Roman Garmendia

## Garmendia abizenaren jatorriaz

Atharratze Soroluzeko udal-letxeke artxiboetan aurkitu dut datu bat oso interesgarria, 15. mende erdian izan zela bertan pastoral bat izenarekin "buhameakgurean", eta bertan, tragediaren testua galduta dagoen arren, Vakel zeritzon ijito bat ageri da, errumaniar jatorrikoa, Carpato mendietatik jina Nafarroako Erresumara, eta berakatzak saltzen zituena. Mende bat geroago Erro herrian bada ageri artxibo munizipalean Pierre deritzan bat Pierre Garmendia, hori ere berakatz saltzailea. Erroko artxiboetan arakatzuz nik ondorioztatu dut ezen Vakel haren familia zela Erron apuntatu zena, bertakotua zegoenez, Garmendia abizenarekin. Baina ez zuen inori ziri hori sartu, eta fama da, gaur egunetara arte iritsi dena, ezen garmendiatarrak ohitura dutela euren jatorduak egitea berakatz asko erabiliz. Eta horregatik sekula ez dira sorginen gustukoak izan. Sabino Aranak ere abertitu zuen abizen hori badaezpadakoa zela eta izan zitekeela eusko enda garbia ez izatea (escritos postumos, Sabino Etxea, Bilbao). Eta azken urte hauetan susmoa berriro berpiztu da, erdi ahaztua egon ondoren, jakin denean euretarriko bat, uste guztien aurka, filosofo metafisikoa egin dela.

## Jostailu erotikoen tailerra Eneko Beretxinagaren eskutik

Gaztetxeko Hamabostaldi Kulturalaren baitan antolatutako egitarauak hamaika esperientzia berri trukatu eta konpartitzeko aukera emango die bertaraten direnei. Jolas erotikoen tailerrak helburu hori du: arlo sexualean izandako esperientziak trukatu eta imajinazioa landu. Urtarrilaren 27an herritar denak daude plaza-zeraz mintzatzera gonbidatuta.

## Ze da jolas erotikuen tailerrian landuko dozuena?

Danon artian lantzeko tailerra izango da. Azalpen praktikorik ez da egongo, bakoitzak izandako esperientziak trukatu eta imajinazioa landuko dogu. Seguru danon artian ikasteko asko daukagula!

## Gai ezberdinak jorratuko dituzue horretarako?

Alor sexualian tradizioz inposatuta daozen tabuak, rolak eta beldurrak alde batera laga eta etxian ditudun tresnei puntu erotikua bilatzen eta jolasteko erabilera topatzen ahaleginduko gara. Ezena erotikoa eta ez erotikuen bikoizketa tailerra egingo dogu eta ligatzeko orduan adibidez, maiz gertatzen diran egoera ezerosuei erantzuna topatzen ahaleginduko gara, talde lanetan laguntzaz.

## Tailerra zeini dago bereziki zuzenduta?

Erotismuaz jakinmina dogunontzat izango da bereziki. Praktika barrixak ikasteko gogoz garenontzat eta oro har plazeran munduan kuxkuxeatu nahi dogunontzat.

## ((ENTZUTEKUAK))



## Badaukazue helburu zehatzik?

Alor sexualian ezarritako mugak apurtzia nahi ditudugu. Norberan lotsak bateratu eta honetaz askatzia.

## Sexuari lotutako industria haundia da. Norberak beria landu bihar dau?

Bai, duda bare! Industria honek saldu nahi dabena baino askoz irekixagua da erotismuan mundua. Norberak beria landu biharra dauka benetako plazer pertsonala bizitzeko!

## Zer ulertzen dozue jolas erotikoa moduan? Danak balixo dau?

Norberan gustoko dan bittartian bai noski! Gozatzeko eta plazera sentitzeko dan bittartian aurrera! Eroso sentitzia garrantzitsua da. Bakoitzak erabaki bihar dau norberantzat zerk balixo dabena.

## Animatu herritarrak erotismua lantzerara!

Aditua ez banaiz be, praktika barrixak ezagutzia, ikustia, sentitzia eta esperimantatzia izugarri aberatsa da! Danon onerako eta osasuntsua... animatu eta etorri!

*Sexuan inori kalterik egin ezian, danak balixo dau!*

**SAN ANDRES**  
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

**HNOS. BENITO ANAIAK**

Etxeke eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47  
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

# Maisuen Etxeetan izen ematea zabalik urtarrilaren 2ra arte

2012ko urtarrilaren 2a bitartean, maisuen etxeetako sei udal etxebizitzetan eman ahalko da izena. Hasteko, etxebizitzak elkarbizitza-unitateentzat izango dira. Eskatzaileek Soraluzean



Etxebizitza sozialak eraberritze bidean.

erroldatuta egon behar dute, bi urte edo gehiagoz. Etxebizitzarik jabetzan ez izatea ere eskatzen da, azken 5 urteetan gutxienez. Etxebizitza-unitatearen diru sarrerak gutxienezko 3.000 euro eta gehienezko 17.066 euro artean egon behar dute. Etxeen kontratuak berri, urtebetekoak izango dira eta gehienez, 5 urtera luzatu ahalko dira. Hasierako hileko errenta, elkarbizitza-unitateko kide guztien diru-sarreraren %15ekoa izango da eta errenta urtero berraztertuko da, bai eta errentariaren egoera ekonomikoa ere.

Baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, udal bulegoetan eskura daitezkeen oinarrien I. Eranskinean adierazitako agiriak aurkeztu beharko dira eskabidearekin batera.

Informazio gehiago: udaleko harriera zerbitzuan edo



## Preso eta Iheslarien aldeko ekimenak

Urtarrilaren 7an Bilbon egingo den herri-mobilizatorako soraluzetarren atxikimenduak batzen dihardu Egin Dezagun Bidea ekimenak. Euskal Preso Politiko eta Iheslarien oinarritzko giza-eskubi-deak betearaztea da ekimenaren helburua eta Bilbokoa "Euskal Herrian inoiz egin den manifestaziorik jendetsuena" izatea nahi dute. Horretarako Soraluzeetik hiru autobus betetzeko erronka jarri diote euren buruari. Dagoeneko "dozenaka soraluzetarren atxikimendua" lortu du ekimenak.



## Hurrengo egunotako hitzorduak:

**Abenduak 23 eta 24:** material-salmenta (Kontzejupean).

**Abenduak 30:** Ekitaldi berezia (19:30ean herriko antzokian).

**Abenduak 31:** Urteko azken elkarretaratzea (19:30ean Zubi Nagusian). Brindisa (01:00etan plazan).

## Txakurrek ardiak hil dituzte

Bost bat ardi hil zituen txakur talde batek San Andres auzoan abenduaren 10ean. Txakurrak ezagutu eta jabeari jakinarazi zioten gertatutakoa auzotarrek, udaltzainekin batera. Azken hilabeteetan ardiak, oiloak, ahuntzak eta beste abere batzuk hil dituzte txakurrek.



## Herri babes zabala Elizbururentzat

Ehun lagunetik gora batu ziren domekan Zinean, herritar, eragile zein hainbat alderdi politikoko ordezkariak, Elizburuk jasaten diharduen jazarpen poliziala salatu, eskubide sozial eta politikoak urratzen direla gogorarazi eta denaren gainetik euren babesa helarazteko.



Gabolatz, 5-B Behea  
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)  
e-mail: jibarza@infonegocio.com



Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12  
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78  
FAX: 943 75 16 10

**MARI MAR HARATEGIA**  
*Gurean Euskal Herriko produktuak!*  
Tel. 934 75 24 02  
Santa Ana kalea, 4 Soraluze



### 2012ko udal aurrekontuen aurkezpen datak

Udal Gobernu Taldeak prest dauka 2012ko udal aurrekontuen zirriborroa. Batzar bidez, abenduaren 27an herriko eragile ezberdinei aurkeztuko zaizkie eta abenduaren 29an herritarrei. Aipatutako batzarrok arratsaldeko 18:30ean izango dira, kiroldegian.

### Urtarrilean auzoz-azoko bilerak

Udal Gobernu Taldeak jakinarazi du urtarriletik aurrera hainbat auzotako herritarrekin batzarrak egingo dituela, euren kezak eta beharrak aztertu eta auzo bakoitzari dagokion irtenbidea den artean zehazteko.

### Atxolinen jaiotza jarri dute

Herriko mendizaleek urtero egin izan duten moduan, aurten ere, metalez eginitako jaiotza igo dute Atxolin puntaraino. Errege Eguna eta hurrengo egunera arte lagako dute bertan ikusgai.



Iturria: Mikel Valero

### 4. 835 euro batu dira tonbola solidarioan

Misio Taldeak Dominikar Errepublikan legenardunentzat dagoen ospitale bat atontzeko lanak egiteko 4.835 euro batu ditu, abendu hasieran egindako tonbola solidarioaren bitartez. Errifa danak saldu eta herritar askok eraman ditu hainbat bolondresak eskuz eginiko panpinak etxera. Soraluzeko Udalaren 300 euroko dirulaguntza jaso dutela ere nabarmendu dute Misio Taldekoek. Lerroon bidez tonbolan parte hartutako herritar denei eta udalari eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiete.

## Berrogei euskaldun euskaltasunaz berbetan

**H**erriko berrogei euskaldunek baino gehiagok parte hartu zuten joan zen zapatuan herriko antzokian egindako "Batusutondora" jardunaldietan. Bertan, euskalduntasunaz jardun zuten, besteak beste, norberak hizkuntzarekin duen loturaz, bizipenez, eguneroko bizimoduan topatzen dituen ezintasunez, euskara elkarteak herrian bete behar duen funtzioaz... Horrekin batera, hizkuntza ekologiaren oinarriko kontzeptuen berri ere jaso zuten. Ikusi zuten munduko hizkuntza eta munduko biodibertsitate handiena "kasualitatez" toki berean kokatua dagoela eta euskaldunon bezala, beste milaka hizkuntza ari direla munduan hizkuntza handien ondoan bizirauteko lehia bizian. Ondorioz, euskaldun izatea eta euskaraz bizitzea munduko hizkuntza eta kultura aberastasunari eusteko modua dela adierazi zuten, bizi aukera ekologiakoagoa azken batean.

### Euskaldunon Elkarteak

Hamabost urte bete ditu Pil-pilean Euskara Elkarteak eta etapa berri bati ekin nahi dio datorren urtetik aurrera. Helburu horri jarraituz antolatu du elkarteak sutondoko hausnarketa berezi hau. Datozen hilabeteetan elkarteak euskara elkarte izatetik euskaldunon elkarte izatera pasatzea proposatuko diete bazkideei eta horrekin batera, herrian euskalduntasuna indartzeko estrategia berriak ere jarriko ditu martxan. Hiztunari garrantzia handiagoa eman eta antzeko hausnarketa saio bereziak antolatzea izango da garatuko den lan-ildo berrietako bat.



Batu sutondora jardunaldietako hiru une.



**JUAN MARI**  
ARRAINDEGIA

943 75 24 40  
MERCATU PLAZA

ESKERRIK ASKO PLAINTXITARRAI  
GUCAN IZANDAKO KONFIANTZAGATIKI

Javier Alonso Zelaeta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOEA  
K.Z. 20.000.434

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



# URTEKARIA 2011



**01 Urtarrila**  
**Tabakoaren legea herrian:** Erretzea zigortzen hasi zen Espainiar Estatu guztian eta baita gurean ere. Oso barneratutako ohitura egun batetik bestera aldatu beharrak eztabaida sortu zuen kalean.



**02 Otsaila**  
**Erdigunearen peatonalizatzea:** 2010 urte bukaeran jakinarazi zuen Udalak erdialdea oinezkoentzako leku bihurtu nahi zuela. Otsailetik ibilgai-luei herri barruan ibiltzeko ordutegia murriztu egin zaie, 13.00etik goizeko 07.00etara bitartean.



**05 Maiatza**  
**Jai Batzorde berri eta sendoa:** Galtzagorri Jai Batzordeak Santiago-Santana jaietako egitaraua prestatzeko egindako deialdiak erantzun zabala jaso zuen herriko gazteengandik.



**06 Ekaina**  
**Hauteskundeetan Bildu garaile:** Maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskundeetan lehen indarra izan zen Bildu. Ordutik lehen emakume alkatea du Soraluzek: Hiart Arluziaga. EAJk botuetan gora egin zuen, PSE-EE eta PPK berriz, behera.



**09 Iraila**  
**Irailak 22a "Oroimen Eguna":** Tropa frankisten inbasio eguna izan zen, due-la 75 urte, irailaren 22a. "Soraluze 1936 Lan Taldea" k efemeridea berreskuratu eta ekitaldi hunkigarri baten bitartez 36ko gerrako biktimak omendu zituzten.



**10 Urria**  
**Soraluze Gogoan bloga saritu zuten:** "Euskadi 2011 Iniziatibadun helduak" saria jaso zuen KZgunetik sortutako blog honek. Lehengo sasoietako kontuen berri ematen dute bertan hainbat herritarrek, argazki eta bideoz lagunduta, eta lanean jarraitzen dute!





**03 Martxo**  
**Japonian bizi diran soraluzetarrak Fukushimaz:** Lurrikara batek eta ondorengo tsunamiak Fukushima zentral nuklearra ezdarazi zuten Japonian. Ramon Bereicua eta Inazio Oregik hondamendiaren berri eman ziguten lehen eskutik. Gertakariak energia nuklearraren gaineko eztabaida berpiztu zuten.



**04 Apirila**  
**Xabier Leteren omenezko kontzertua:** 2010eko abenduaren 4an joan zen euskal idazle, poeta eta kantaria. Bere heriotzak hunkituta, omenaldi bat egiteko nahia sortu zen herrian. Apirilaren 9an hainbat herritar taldek ere kantua eta poemak eskaini zituzten Zinean.



**07 Uztaila**  
**Lipduba "Mugitu Gherrixa":** Galtzagorriek antolatutako ekimen honetan 400 herritarrek hartu zuten parte. Santiago-Santana jaien atarian giroa berotu eta herritarren parte hartzea sustatzeko egin zen lipdub-a, eta herria bizi-bizirik dagoela frogatu zen.



Iturria: Gaizka Azkarate.

**08 Abuztua**  
**ZZ Blues Banden hastapenak:** Zuhaitz Zatitxuak Blues Band taldeak bere lehenengo inprobisazio ekitaldia egin zuen Andamarixetan. Gainera, San Roke eguneko patata tortila txapelketan 11 bikotek hartu zuten parte eta dantzaldiak, herri-kirolak eta txikiendako puzgarriak ere izan ziren.



**11 Azaroa**  
**Euritea herrian:** Azaroaren 6a, domeka, euria egin eta egin aritu ondoren, hainbat baserri auzotan luizi haundiak izan ziren eta isolatuta geratu ziren Irure, Ezozki edo San Andresko auzoak, baita herria bera ere. Herritarrek lan handia egin behar izan zuten urak berbideratzen.



**12 Abendua**  
**Gotzon Elizbururen salaketa:** Beste hiru gazte independentistarekin batera, Elizburuk poliziaren aldeko jazarpena salatuta zuten publikoki. Astebetara, herri babes zabala jaso zuen Zinean egindako agerraldian.



# ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Datorren abenduaren 27an jolas erotikoen gaineko mahaingurua eta tailerra egingo dute gaztetxean. Gaiari heltzeko eta zabaltzeko beharra ikusita eta berarekin daraman ikuspegi materialistatik askatzeko antolatu dute. Herritarrek zela ikusten ote dute jostailuen kontu hau?

## Probatu dozu inoiz jostailu erotikorik?

**INMA MOLINA**



**E**z dot erabili biharrik euki ez dotelako, baina igual probatu biharko neuke. "Tupersex" dalakuetan danetik egoten da, bibragailuak, bola txinatarrak... Erregalatuko neuke holako bat, nahiz eta pertsonala izan monotonia apurtzeko balixo leike.

**MARISA MOLINA**




**N**i ez naiz ikusten, nere buruakin moldatzen naiz. Oparitu be ez neuke egingo, ez nintzake ausartuko eta. Gure ohiturak aldatzia kostatzen da, baina holako tailerrak lagundu be egitten dabe.

**AITOR FERNANDEZ**



**E**z dot inoiz jostailurik probatu, baina denporia euki ezkeru gustora egingo neuke. Ez dot uste tabu bat danik jostailu erotikuen kontua. Opari originala irizten jata, nori egin jakittia da kontua!

**MIKEL ARANTZETA**



**N**ik uste sexuan inguruan eztabaidia zabaldu eta naturaltasunez hitz egin bihar dala. Bakardian probatzen dala uste dot, bikotekidiakin ia ez dakit. Inbestigatu nahi dabenak egin deixala, inori ez dotsa kalterik egitten eta.

Eman zure iritzia sarean



**MABE**  
ILEAPAINDEGIA

**ESTETIKA**  
**SOLARIUM**

Errabal kalea 1. behea  
Tel.: 943 75 14 89  
20590 SORALUZE

**PASCUAL CHURRUCa, s.a.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

**Errekalde 21**  
**20590 SORALUZE**

T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61

**Harategia**

Enkarguz  
eskatutako janaria ere  
prestatzen dugu

**HARATEGIA**

Kalebarren 3. Soraluze Tel. 943 75 12 49

**KM**  
*Desing*

Disceinua eta Sormena

Poligono Amillaga, nº 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



**Gaztetxeko abenduko ekitaldiak:****Gaur 16:30ean:**

Umien jostailu tailerra.

**22:30ean:**

ZZ Blues Band-en kontzertua.

**Abenduak 25 19:00etan:**

"Hacia rutas salvajes" pelikula eta txokolatada.

**Abenduak 26 17:00etan:**

Umeentzako antzerkia.

**Abenduak 27 egun osoz:**

Jostailu erotikoen tailerra.

**Abenduak 28 18:30ean:**

Gaztetxeari buruzko kafe tertulia.

**Abenduak 29 12:00etan:**

Abdominal hipopresibo tailerra.

**Abenduak 30:**

Tripa festa! Azken ostiraleko afari begeta.

Ekitaldien zerrenda osatua: **Karta txapelketa arrakastatsua**

Aurreko eguaztenean briska, tute eta mus txapelketako irabazleak saritu zituzten Itxaropenan. Bertaratutakoek opariz betetako 30 poltsa ere eraman zituzten etxera. Briskan Antonio Arribas eta Dionisio Gil bikotea nagusitu zen. Tutean Antonio Martin eta Julio Devesa gailendu ziren eta musean Jose Antonio Calles eta Pedro Aldazabal.

**Santiagooko Bidea irudiz irudi**

Kontrargik antolatuta, abenduaren 13tik 31ra bitartean, J.R. Llavori Romanet zumaiarrak Santiagoko Bidean ateratako erretratuek apainduko dituzte kiroldegi-ko erakusketa aretoko hormak. Lanegunetan: 19:00etatik 20:30era. Asteburu eta jai egunetan: 12:00etatik 13:30era.

# Gabon sasoia, aisialdirako aukerez beteta

**A**urtengo egitaraua ekoizteko aiaz baino 2500 euro gutxiago izan badira ere, herriko haurrei, gazteei zein helduei zuzendutako egitarau anitz eta parte hartzailea antolatu dute herriko

eragile, elkarte eta talde ezberdinek elkarlanean. Kontzertuak, bisitak, opariak eta ikastaroak izango dira besteak beste herri-tar guztien gozagarri.

**Gaur, abenduak 23:**20:00etan Zinean **GABONETAKO KONTZERTUA**, Ezoziko Ama Abesbatzaren eskutik.

Ant: Ezoziko Ama Abesbatza.

**Abenduak 24, zapatua:**11:00etatik aurrera **OLENTZERO** eta **MARI DOMINGI** kalez kale eta jarraian opari banaketa.

Ant: Plaentxi Ikastetxea, Atxolin Guraso Elkarte, Kukumixio Aisialdi Taldea, Pil-pilean eta Musika Eskola.

**Abenduak 26, 28, 29 eta 30:**11:00etatik 13:00ra **PATINAIA IKASTAROA** kiroldegian.

Ant: Plaentxi Ikastetxea, Atxolin Guraso Elkarte, Kukumixio Aisialdi Taldea, Pil-pilean eta Musika Eskola.

**Abenduak 27, martitzena:**15:00etan Estaziño kaletik, Txuri Urdinera **IRTEERA PATINATZERA**, DBHko ikasleentzat.

Ant: Keixeta Guraso Elkarte.

**Abenduak 28, eguaztena:**18:00etan Zinean, **POTXIN** eta **PATXIN** pailazoak, "Ohitura onak" lanarekin. Prezioa: euro 1.

Ant: Kultura Batzordea.

Gabonetako **goxogintza ikastaroa** nagusien egoitzan.

Ant: Mesedeetako Amaren Egoitza.

**Abenduak 29 eta 30:**11:00etatik 13:00ra eta 18:00etatik 20:00ra **TXUTXU TRENA** herritik zehar.

Ant: Bizikale Merkatari Elkarte.

**Abenduak 30, barixakua:**17:00etan pilota-eskolako **pilotarien PARTIDAK** kiroldegian.

Ant: Soraluze Pilota Elkarte.

**Urtarrilak 4, eguaztena:**Goizeko 11:30etatik 13:30era eta 16:30etatik 19:30era **HAUR PARKEA** kiroldegian.

Ant: Atxolin Guraso Elkarte.

Bingo berezia nagusien egoitzan.

Ant: Mesedeetako Amaren Egoitza.

**Urtarrilak 5, eguena:**19:00etan Txurrukenetik hasi eta Eliza atarira **ERREGEN KALGATA**.

Ant: Beti Prest taldea.

**Txokolatada eta Erregeen bisita**, nagusien egoitzan.

Ant: Mesedeetako Amaren Egoitza.

**Argazkilari trebeentzat sariak**

Carlos Mediavillak, Iosu Perezek eta Juan Manuel Berruetak Fernan Oregi izendatu zuten Kontrargik azaroan antolatutako argazki Rallyko irabazle. Bigarren saria Carlos de Cosentzat izan da eta 80 euro eraman ditu etxera. Hirugarren eta 60 euroko diru sariarekin Idoia Zearreta zumaiarra sailkatu da. Zorionak irabazleei!



**Belarrak**  
**Loradenda**  
eta  
**belardenda**

T. 943 75 30 11



**Etxabe Harategia**

**Euskal txahalkia Bildotsa**

Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak  
T. 943 75 23 75





# Laskurainek Xala izango du bikote Binakako Txapelketan

A benduaren 13an aurkeztu zituzten Eskuz Binakako Txapelketan lehiatuko diren bikoteak Bilboko Bizkaia aretoan. Laskurainek Xala izango du bikote txapelketa osoan zehar. Sorluzetarra pozik azaldu da eta lehiatzeko gogoz dagoela azaldu du. Xala maila oso oneko aurrelaria dela eta pilotari biek txapelketa esperantza askorekin hasi dutela ere nabarmendu du.



Laskurain iazko txapelketako finalean. Iturria: Carlos de Cos



Herriko jarraitzaileen animoak jasotzen hasi da Lasku.

## San Silvestre krosa abenduaren 31n

Urteetako tradizioa mantendu eta San Silvestre krosa egingo da herritik zehar abenduaren 31n. Lau kilometroko ibilbidearen irteera udaletxe paretik izango da arratsaldeko 17:00etan. 8 urtetik

beherako haurrek gurasoen konpainiaz egin beharko dute lasterketa eta antolatzaileek musika instrumentuak eramateko gonbita luzatu dute, krosa girotze aldera.

### EMAITZAK

#### PELOTA

|                          |    |
|--------------------------|----|
| Titin III – Laskurain    | 22 |
| Berasaluze VIII – Apraiz | 13 |
| Xala – Laskurain         | 22 |
| Aritz Lasa – Zubieta     | 12 |

#### FUTBOLA

|  |      |
|--|------|
| Sora (Erreg. Pref.) – Ilintxa            | 1-1  |
| Urki – Sora (Erreg.)                     | 0-1  |
| Aloñamendi "B" – Sora (Jub.)             | 0-1  |
| Kadeteek atsedena                        |      |
| Soraluze (BHI mutilak) – Antigua Luberri | 4-1  |
| Sora (BHI neskek) deskantsua             |      |
| Eibartarrak F.T. – Sora (Erreg. Pref.)   | 2-0  |
| Sora (Erreg.) – Mondragon C.F. "B"       | 1-1  |
| Sora (Jub.) – Arizmendi K.E.             | 13-0 |
| Arizmendi K.E. – Sora (Kad.)             | 4-2  |
| Sora (BHI mutilak) deskantsua            |      |
| Mondragon C.F. – Sora (BHI neskek)       | 12-1 |

### AGENDA

#### PELOTA

**Gaur, 18:00etan Tolosako**

**Beotibarren:**

Xala – Laskurain

Mtz de Irujo – Barriola

**Frontenis txapelketako finala, abenduak 24 larunbata:**

15:00-17:00: finak laurdenak.

17:00-18:00: final aurrekoak.

18:00: finala. Kiroldegian.

#### MENDI TALDEAREN OHARRA:

2012ko federatu lizentziak tramitatzeko epea zabalik dago, 2011ko lizentziak urte bukaeran zaharkitzen dira eta. Lizentziak berritzeko ordutegia: eguenetan, 19:30etik 20:30era bitartean, Pil-pilean Euskara Elkarteko egoitzan. Ordainagiriari konzeptuan izen-abizenak jarri eta honek mendi taldeko egoitzara eramatea edo e-mailez bidaltzea derrigorrezkoa da. Aurten ere federatu bakoitzak 10€ ordaindu beharko ditu bazkide kuota gisa. Kutxako kontu korranteak:

Bazkide kuota:

2101 0062 16 0121871321

Federatuena:

2101 0062 10 0122519697

#### Lapurreta Ezoziko futbol zelaian

Soraluzeko Futbol Klubak jakinarazi du joan den azaroaren 28an bigarren aldiz egin zutela lapurretan Ezoziko futbol zelaiko tabernan. Azaroaren 29 goizean, tabernako garbitzailea ohartu zen pertsiana apur bat zabalik zegoela. Besteak beste irrati eta musika aparailuak, alkohol botilak eta latak, zukuak, gozokiak eta jakiak lapurtu dituzte.





# ZORION AGURRAK



**Ianire Makinai Milan**  
Abenduan 16xan 13 urte!  
Zorionak "sorgina" etxeko guztion partez!  
Muxu asko Izan partez.



**Zorionak Nahikari**  
Abenduan 26xan 33 urte!  
Lagunen partez zorionak eta muxu haundi bat!  
Kontuz turroiakin! Jejej!!



**Xabat Deza**  
Abenduan 27xan 8 urte!  
Zorionak eta muxu haundi-haundi bat  
Argateko familixian partez!



**Jon Amutxastegi**  
Abenduan 18xan urtebete!  
Zorionak eta muxu haundi bat  
familixa guztixan partez!



**Andrea eta Iker Dominguez**  
Abenduan 27xan 6 urte eta urtarrilan 6xan urtebete!  
Zorionak bikote! Muxu haundi bat etxeko danon partez!



**Ihintza Garate**  
Abenduan 24xan 10 urte!  
Pila maitte zaitugunon partez oso ondo pasatu eguna eta jarraitu zoragarria izaten!



**Malen Ugalde**  
Abenduan 18xan 3 urte!  
Zorionak poxpolin!  
Segi gure bihotzak alaitzen!  
Muxuak!! Etxekuak!



**Jone Cortes**  
Urtarrilan 9xan 5 urte!  
Zorionak eta ondo-ondo pasatu urtebetetze egunian!  
Muxuak etxekuen partez!



**Mikel Moreira Burunza**  
Abenduan 2xan jaixua!  
Ongi etorri etxera ttiki!  
Muxu pila eta maittasunik beruena etxeko danon partez!



**Zorionak prexioak!**  
Etxeko guztien partez eta eguna oso ondo pasatzeko txokomarrubizko muxu pottolo bat Ametsen partez!



**Inaxio Beristain**  
Abenduan 16xan 72 urte!  
Txintxua izaten jarraitzeko esanaz, etxekuen partez muxuak!



**Btisan Elkanouni**  
Abenduan 26xan 12 urte!  
Zorionak Josu, Zuhaitz eta etxeko danon partez!



**Pil-Pilean Euskara Elkartea**  
Abenduan 15 urte  
Zorionak gazte!  
Segi herrixa bixi-bixi mantentzen.

## jaiotakoak

MIKEL MOREIRA BURUNZA  
AITOR UGALDE ALBERDI  
JOANES UGALDE ALBERDI



## hildakoak

M<sup>a</sup> ARANZAZU ALDABAL TXURRUKA  
SONIA OLABARRIA GONZALEZ



## LEHIAKETA

## AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Zein ageri da argazki honetan?**

► **Saria:** Pirritx eta Porrotxen "Zazpikoloroa" CDa eta "Irrien Lagunak" DVDa.



► **Irabazlea:** Xabier Arribillaga

► **Arantxa Mata**, Plaentxi H.I.ko irakaslia da aurreko aleko argazkixan agertzen zana.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da.

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**



# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Jabi Garmendia

## GERRIA HASI ETA DEBARA EGUNPASA

**E**rretratu hau Espainiako Gerra Zibila hasi zan egunian jasota dago, 1936ko uztailan 18xan. Lagun kuadrila honek egun aproposa aukeratu zeban Debako hondartza bisitatzeko, inoiz ahaztuko ez daben datia benetan. Eguraldixa lagun zeukela Debako hondartzara irteeria egittia pentsatu zeben. Egun hortan giruaz gozatu eta mokadu goxua egin ostian herrira itzuli ziran, 1939. urtera arte iraungo zeban gerria hasi zala ziharduen notizia zain zeukela.

**Argazkixan ezkerretik eskumara:** Felipa Bengoa, Fidela Beiztegi, Felix Larrañaga, Benin Goikoetxea, Gregoria Larrañaga eta Pako Goikoetxea.

*Zuskaltasunaren suak  
epeltzen eta berotzen gaitu,  
erretzen ere badaki.  
Inguruan dantzaz jartzen gaitu,  
kontu-kontari ere bai.*

*2012an ere sua zaintzen jardungo dugu.*





**FRESATZEKO ETA MANDRINATZEKO MAKINAK**  
**FRESADORAS-MANDRINADORAS**



**SORALUCE**

Soraluce S. Coop.  
Barrio Osintxu s/n  
20570 Bergara  
Gipuzkoa

Tel. +34 943 76 90 76  
Fax: +34 943 76 51 28  
soraluce@soraluce.com  
www.soraluce.com

*2011ko Pil-pilean Euskara Elkarteko  
egitasmoa diruz lagundu du.*

*Eskerrik asko!*



**PIL-PILEAN**  
EUSKARA ELKARTEA



# KOLOSALA IZANGO DA!

Euskal Preso ta Iheslarixen  
eskubidien aldeko

ABENDUAK 30  
19:30ean Zinian

HERRI **EKIMENA**



*Bidixuak, preso ta iheslarixen egoeran berri jaso, musikia zuzenian...*

URTARRILAK 7  
HERRI MOBILIZAZIO  
17:30 BILBON  
**OROKORRA**

AUTOBUSERAKO TXARTELAK  
Gaztelupe, Gila, Arrano ta Bolian 6 €tan

EMAN ZURE  
**ATXEKIMENDUA**  
[www.kolosalaizangoda.info](http://www.kolosalaizangoda.info)